

AKTA

Akta zenb.	2009/1
Organoa	Udalbatza
Batzarra	Ohiko Osoko Bilkura
Tokia	Udaletxeko areto nagusia
Eguna	2009-05-28
Deialdia	Lehenengoa
Hasiera ordua	Arratsaldeko 19'30etan.
Amaiera ordua	Arratsaldeko 19'50an.

Bertaratutakoak:

1. Jesús M. Fullaondo
2. Iker Arostegi
3. Kepa Arrizabalaga
4. Leixuri Arrizabalaga
5. Iñaki Aginaga
6. José M. Markaida
7. Deitze Erkoreka
8. Maite Elordui

Ez da etorri, baina horretarako arrazoiak emon dauz: Gotzon Arrieta

Behin-behineko Idazkaria: José Ignacio Etxebarria Atutxa

Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar dan gutxieneko kopurua dauala ikusi ondoren, eguneko aztergaian agertutako gaiet buruz eztabaidatu dabe:

1.- ARTEKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Ohar bi dagoz.

Lehenengoa: Deitze Erkorekak esaten dau 7.3 mindazuloak puntuan errakuntza bat dagoela, Jesús M. Markaida esaten dauala Jesús M. Fullaondo esan beharrean.

Bigarrena: José M. Markaidak esaten dau 7.1 bermeak puntuan berak galdetu ebala lizentziak emoterakoan zergatik batzuri abala eskatzen jakeen eta beste batzuri ez.

Idazkariak erantzuten deutso, pleno horretako grabazioa entzungo dauala eta horrela bada konponduko dala akatsa.

2.- ALKATE DEKRETUEN KONTU EMOTEA.

Alkate dekretuen kontu emoten da, eta ez da oharrik egon.

3.- BAKE EPAILE NAGUSIA ETA ORDEZKOA.

Idazkariak azaltzen dau nola 4 urte pasatu direnez, bake epaile nagusia eta ordezkoa aukeratu behar direla. Baita esaten dau, horregatik Bizkaiko Aldizkari Ofizialera iragarki bat bialdu dala, eta bertan irtetzen dauenean herrian buzoneo bat egingo dala jende interesduna apuntatu dagien.

José M. Markaida eta Deitze Erkorekak euren kexa adierazten dabe puntu hau eta seigarrena komisiotik ez pasatzearren.

Alkateak erantzuten dau, azken orduko gauza bat izan dala.

4.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ESKAKIZUNA.

Gizarte langileak egindako txostena kontuan harturik, ahobatez onartu da Y.P.B. andreari 1.740,00.- eurotako gizarte larrialdietarako laguntza emotea.

5.- KASAZIO ERREKURTSOEN KOSTUAK.

Alkateak azaltzen dau aholkulari ekonomikoak nola honeri aurrekontu aldetik irtenbide bat aurkitzeko, apur bat itxaroteko esan dauala, eta hurrengo astean ez ohiko osoko bilkura izango danez, ordurako posible bada proposamen bat egongo dala.

6.- FUTBOL ZELAIAREN ALDAKETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAKIZUNA.

Alkateak esaten dau, hau Diputaziora 2009ko kirol azpiegiturak programaren barruan aurrera eroateko Foru Dekretuak eskatzen dauan tramite bat betetzeko dala, bertan lan hau egiteko dagoen asmoa erakutsi behar dala eta.

Proposamena ahobatez onartu da.

7.- ESKABIDE ETA GALDERAK.

7.1 Hiri antolamendurako plan nagusiaren kontratazio mahian izandako aldaketak

Idazkariak, hiri antolamendurako plan nagusiaren kontratazio mahaian egon dan aldaketaren kontu emoten dau. Apirileko osoko bilkuran onartu zan kontratazio mahaian idazkari-kontuhartzaile moduan Chiara Camaron izan behar zan eta orain postu honetan José Ignacio Etxebarria egongo da, eta administrari moduan José Ignacio Etxebarria egon zan tokian, orain Juan Carlos Asua agertuko dala.

7.2 Butroiko zubiaren arazoa dala eta, beste bidean dagozan batxeak

José M. Markaidak esaten dau Butroiko zubiaren arazoa dala eta irtenbide moduan konpondu zan bidean, Urdulizko partean batxeak dagozela eta konpondu egin behar direla.

Alkateak erantzuten deutso bide guztia konpondu zanean egin zauala berba Urdulizeko alkateagaz, eta honek eurek asfaltatuko ebela esan eutsola.

José M. Markaidak esaten dau gutxienez todounogaz konpondu behar litekeela.

Jesús M. Fullaondok erantzuten dau, soluzio bat aurkitzeko barriz Urdulizeko alkateagaz berba egiteko konpromisoa hartzen dauala.

7.3 Belar mozketa

José M. Markaidak herrian belarrak ebaki barik egotearen arazoa jakinarazten dau.

Alkateak erantzuten deutso, lanean hasi garenean traktoraren desbrozadora aberitu egin dala, besoan dagoen bomba apurtu dala eta, erreposturik hemen ez dagoenez barria egin behar denez, bien bitartean beste makina bat subkontratatea pentsatu dabela.

Deitze Erkorekak galdetzen deutso ia makina alokatuko dan gure pertsonalagaz, eta alkateak erantzuten deutso ez dabela makina bakarrik alokatzen, baita ere esaten dau alkateak, datorren astean hasiko dala makina hori herritik lanean.

Iluntzeko 19'50tan amaitutzat emon da bilera.

IDAZKARIA

ALKATEA